

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onartzea txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza

Zalduondon txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzari hasierako onarpena ematen dion udalbatzaren erabakia jendaurrean egon den bitartean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da, halaxe xedatzen baitu apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan. Era berean, Lege horren 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, ordenantza horren testu osoa ematen da argitara, guztiek jakin dezaten.

ZIOEN AZALPENEA

Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babesteari buruzkoak, gutxieneko esparru bat finkatu zuen gizakien eta txakurren bizikidetzaren antolatzeke. Horretarako, gizarte osasuna eta animalia horiekiko errespetua, horien defentsa eta babesa uztartzen ditu, interes orokorretara lotutako oreka baten barruan.

Lege hori argitaratu eta indarrean jarri zenetik geroz eta pertsona gehiagok daukate txakurra eta gorakada horren heinean gehitu dira txakurren eskubideen inguruko kontzientziarioa eta txakurrak egungo ingurune modernoan modu egokian bizitzeko esparru zehatzagoa finkatu behar dela diotenen indarra; izan ere, geroz eta beharrezkoagoa da txakurra duten pertsonen eta gainerakoen arteko bizikidetzaren ondo bideratzea, arriskuek gainez egin ez diezaieten animaliak gertu izateak dakartzan onurei.

Txakurra duten pertsonak kontuan eduki behar dute animaliak beraien menpean daudela gauza guztietarako. Txakurrek behar dituzten arreta guztiak emateko ardura hartu behar dute eta bermatu behar dute txakurren presentziak edo azturek ez dietela kalte egingo gainerako herritarrei, batez ere txakurrak gustatzen ez zaizkien pertsonen eta herriguneetako higienez, apaindura eta segurtasunean.

Txakurrak babesteko Legea onartu zenetik, arlo honetan arauzko erregulaziorako prozesu sendoa egon da. Horren adierazgarri garrantzitsua, seguruenik, abenduaren 23ko 50/1999 Legea, txakur arriskutsuak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoa, izan zen. Txakur arriskutsu batzuk edukitzeak gizartean sortutako kezkarik erantzun nahian, lege horrek araubide zorrotza ezarri zuen era horretako animaliak edukitzeari dagokionez, alde aurretik baimena eskuratzeko betebeharra eta animalioi edukitzeko baldintza berezien nahitaezotasuna eskatuz, besteak beste.

Hasieran, abenduaren 23ko 50/1999 Legea behar bezala aplikatzeko beharrezko legegintza garapenik ez zenez egon, gure eremu autonomikoan berariazko arau bat onestearen alde egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeko arauak ematen dituen apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua xedatuz, hain zuzen. Beste hainbat gairen artean, «arriskutsuak izan daitezkeen txakurren» figura ezarri zuen, zenbait animalia edukitzeak gizartean sortutako aipatutako kezkarik erantzuteko asmoarekin. Hala ere, arau horren indarraldia arras eztabaidatua izan zen, martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua argitaratu zenean. Dekretu horren bidez abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen zen, Lege horren aplikazio eremua zehaztasunez mugatuz, neurri handi batean oinarritzko izaerarekin.

Segurtasun juridiko gabeko egoera sortu berria gainditu eta erregulaziorako marko egonkorra finkatzeko, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak

edukitzeari buruzkoa, argitaratu zen. Dekretu horrek, berrikuntza batzuekin, lehendik zeuden arauak bateratu eta, beharrezkoa izan zen kasuetan, hasieran aipatutako urriaren 29ko 6/1993 Legearen, animaliak babestearenaren, testuinguruan kokatu zituen.

Segurtasun juridiko gabeko egoera sortu berria gainditu eta erregulaziorako marko egonkorra finkatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua argitaratu da. Dekretu horrek, berrikuntza batzuekin, aurreko araudia moldatu eta, beharrezkoa izan den kasuetan, hasieran aipatutako txakurrak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen testuinguruan kokatu du.

I. TITULUA. XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA DEFINIZIOAK

I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da, batetik, Zalduondoko udalerrian dauden txakurrak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea, erroldatutakoak izan ala ez, bertan erregistratutakoak izan ala ez, animalion jabeen edo edukitzaileen bizilekua edozein izanik eta, bestetik, euren eta pertsonen arteko elkarbizitza harmonizatzea ingurumenaren osasunerako eta pertsonen eta ondasunen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako balizko arriskuekin.

Horretarako, tratua, higiena eta zainketaren ikuspuntutik txakurrek gutxienez jaso beharreko arretak finkatu, eta establezimendu berezietan egoteari, osasun sorospenerari, merkaturatzeari eta saltzeari buruzko arauak ezartzen ditu.

Era berean, arriskugarriak izan daitezkeen txakurrak edukitzeari buruzko araubide juridikoa arautzen du, eta baimenaren beharra, txakurrak edukitzeko baldintza orokorrak eta erregistroen araubidea ere kontuan hartzen ditu.

II. KAPITULUA. DEFINIZIOAK

2. artikulua. Definizioak

1. Jatorriaren edo jabearen inolako identifikaziorik ez duena eta inork laguntzen ez duena.
2. identifikazioa izan arren, galerari buruzko salaketa aurkeztu ez duen edukitzaile edo baimendutako pertsona duena.
3. Txakurraren edukitzailea: txakurren erroldaren arabera, txakurra haren izenean duen pertsona, horren arduraduna dela.
4. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan zehaztu dira; horrez gainera mota bereko txakurrak dira dekretu horretako 10.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera arriskutsutzat jotzen direnak ere.
5. Edukitzeko baldintza berezipeko txakurtzat hartuko dira beraien ezaugarri etologikoengatik etxean eduki ahal izateko udal agintaritzak baldintza bereziduntzat izenda ditzakeen txakurrak.

II. TITULUA. TXAKURRAK EDUKITZEAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

3. artikulua. Betebeharrak

1. Oro har, txakurra daukanak ondo artatu behar du (bizimodua, higienean eta osasuna) eta ezin du jo, ez gaizki erabili, ez abandonatu. Horrez gain, txakurraren portaeraren eta pertsonen eta ondasunen egiten dizkien kalteen erantzulea da.

Txakurra daukanak animaliak mantentzeko gutxienerako baldintza hauek bete behar ditu:

a) Edateko ur eta elikagai nahikoa eta orekatua ematea, nutrizio eta osasun egokia izan dezan.

b) Txakurra osasun egoera onean izan behar du, behar den guztietan al baitariarengana eraman behar du.

c) Txakurrarentzat egokiak eta beharrezkoak diren espazioa, aireztapena, hezetasuna, tenperatura, argia eta babeserik behar ditu, hark sufrimendurik jasan ez dezan eta bizitzako premiak eta ongizatea bermatuta eduki ditzan.

d) Bizilekuak garbi, parasitorik gabe, desinfektatuta eta intsekturik gabe edukitzea, gorozkiak eta gernua aldian-aldian kenduta.

e) Ezin du eduki beti lotuta, ezta mugitu ezinik ere. Ezin du erabili txakurraren mugikortasuna murrizten edo mugatzen duen tresnarik.

f) Ezin du abandonatu, ez tratu txarrik eman, ez torturatu, ez kaltea edo sufrimendua sorrarazi ahal dion ezer egin, ez mutilatu, al baitari batek egin ezean edo duten arrazarako itxura egokia ematekoak izan ezean. Ezin da hiru egun baino gehiago bakarrik utzi etxean pertsona baimenduren baten kontrolik gabe.

g) Txakurrak solte badago lorategi, orube eta itxitako bestelako esparru batean, hurbiltzen diren igaroleei kalterik ez egiteko neurriak ezarri behar ditu, batez ere hesia, eta txakurraren berri ematen duen oharra jarri behar du.

h) Txakurraren zaunkek ezarritako parametro akustikoak ez gainditzea bermatu behar du.

i) Txakurraren ohiko bizilekua ezin da izan ibilgailua. Garraiatu behar izanez gero, tamaina nahikoa duen espazio batean egin behar da, aterpean eta eguraldi aldaketa zakarretatik babestuta. Gainera, txakurrak ezin du ibilgailuaren gidariaren jarduna oztopatu, ez eta bide segurtasuna arriskuan jarri ere. Ibilgailua txakurraren ezaugarri etologiko eta fisiologikoetarako egokia izan behar da.

j) Txakurra aparkatutako ibilgailu batean uzten bada, ezin da eduki aparkatuta 4 ordu baino luzaagoan; udan, ahal dela gerizpetan eta ondo aireztatuta utzi behar da.

k) Pertsona batek ezin badu segitu txakurra mantentzen eta badu aurkitzen haren kargu hartu dezakeen inor, baimendutako animaliak babesteko zentro publiko zein pribatu batean utzi behar du.

2. Txakurren jabeek ondokoak egin behar dituzte gainerako pertsonekin modu baketsuan bizitzeko:

a) Txakurra txipatuta eta udalaren txakurren erroldan erregistratu eduki.

b) Ez xaxatu txakurra beste txakur batzuen edo pertsonen kontra, ez eta pertsona edo ondasunei eraso egitera oldarraziti ere; debekatuta dago harrokerietan ibiltzea txakurraren eraso-kortasuna dela eta.

c) Debekatuta dago txakurrak erakusleihen jartzea salmentarako erakargarri gisa; kanpotik inork eragozpenik sortu ezin dien tokian jarri behar dira.

d) Igogailua erabiltzen denean, txakurra daukan pertsonak baimena eskatu behar die igogailuan sartzen diren beste pertsonaei; baimenik eman ezean edo norbait uzkur izanez gero, itxaron egin behar du eta geroago sartu biak bakarrik.

e) Nornahi ibil daitekeen bide publikoetan eta espazio libre publikoetan zein pribatuetan ibiltzeko ezinbestekoa da txakurrak txipa edukitzea eta Udalaren erroldan erregistratuta egotea. Horrez gain, pertsona zuhur eta egokiak eraman behar du txakurra, uhalarekin, lokarriarekin edo kate idunekodunarekin lotuta (bi metro luze gehienez). Agerikoa bada txakurraren portaera

arriskutsua izan daitekeela, muturrekoa ipini behar zaio, eta gauza bera egin behar arriskutsuak izan daitezkeen txakur guztiekin ere.

f) Landaguneetan aziendekin dabiltzan txakurrek txipa eduki behar dute eta Udalaren erroldan erregistratuta egon behar dira. Hori gorabehera, aske ibil daitezke, baina jabeen edo eramaileen kontrolpean beti; ezin dituzte molestatu etxeko beste abereak, ez basa animaliak, ez pertsonak, ez ondasunak.

g) Ehiza txakurrek ere txipa eduki behar dute eta Udalaren erroldan erregistratuta egon behar dira. Ehizaldietan bakarrik ibil daitezke aske, eta ehiztarien kontrolpean beti. Udalerriko ehiza esparru batera beste udalerrri batzuetako ehiztariak badatoz, ehizaren ustiapenaren titularrak kanpotik datozen txakurrek txipa duten eta beraien udalerrian behar bezala erregistratuta dauden kontrolatu behar dute, eta osasun kontrola pasatu duten ere bai.

Nolanahi ere, txakurrak daramatzatenek haiek zaindu eta kontrolpean eduki beharko dituzte, eta bermatu egin beharko dute den-denak jatorriko lekura itzultzen direla.

h) Higiezin eta orubeen jabeek behar diren neurriak hartu behar dituzte txakur basatiak edo kontrolik gabe dabiltzan txakurrak ahalik gutxien izateko.

3. Txakurra galduz gero, jabeak haxe egin behar du:

a) Txakurra galdu zaiola jakinarazi udalari, galdu eta berehala.

b) Txakurra kalean hartu dela jakinarazten zaionean, berehala joan gordeta dagoen lekura: hasierako udal gordailua edo animaliak babesteko zentrora) animalia hartu eta sortu dituen kostuak ordaintzera.

Abisua jaso ondoren jabeak ez badu txakurra jasotzen udal gordailuan Arabako Foru Aldundiarekin itundutako animaliak babesteko zentrora eraman baino lehen, zentro horretara joan behar du bila eta bertan sortutako gastuak ordaindu.

4. Txakurraren jabeak edo edukizailleak uste badu animaliak gaixotasun kutsagarriren bat izan lezakeela, albaitariari eman beharko dio horren berri eta, albaitariak, eskumendun agintaritzari jakinarazi beharko dio, baldin eta zoonosia dela uste edo hala egiaztatu ahal izan badu.

5. Albaitariak diagnostikatzen badu txakur batek gizakiak edota beste animalia batzuk kutsatzeko moduko gaixotasun infektaberaduna izan dezakeela eta, haren iritzian, animalia hiltzea komeni bada, sistema eutanasiko baimenduren baten bidez hil beharko da jabearen kargura.

4. artikulua. Animalien identifikazioa

1. Udalerrian modu iraunkorrean edo hiru hilabete baino luzeago bizi izanez gero, jabeak udalean identifikatu eta erroldatu behar du txakurra, jaiotzen denetik edo eskuratzen duenetik hilabete pasatu baino lehen.

2. Txakurra identifikatzeko, albaitari ofizial batek (Aldundikoak zein Udalekoak) edo animalia txikientzat gaitutako albaitari pribatuak mikrotxipa edo osagai elektronikoa jarriko dio lepoaren ezker aldean.

Aipatutakoa jartzeko, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak identifikatzeko metodo elektrikoaren erabilera arautzen duenak, eta ezartzen diren gainerako arauak xedatutakoari jarraituko zaio.

Txakurra identifikatzeko momentuan, albaitari ofizialak edo jardunean ari den gaituak kartilla ofiziala zein identifikatzeko agiria beteko ditu, baita Euskal Herriko Animalien Identifikazio Erregistro Orokorrean (AIEO) izena emateko eskabidea ere, 1993ko maiatzaren 5eko Aginduren bidez sortu baitzen. Agiria interesdunen eskura egongo da albaitari ofizialen zein gaituen bulegoetan. Ale bat albaitariak gordeko du eta beste biak jabeak jasoko ditu; horretariko bat Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailera bidali behar du NANarekin kopia batekin batera datuak AIEOn inskribatzeko.

3. Ez erroldatzea, edo epez kanpo egitea, arau haustea izango da Animaliak babesteko Legearen 27.1.a artikuluan xedatutakoari jarraituz.

4. Txakurraren jabeak AIEOri jakinarazi behar dizkio erregistro horretako datuetan gertatzen diren aldaketa guztiak, hain zuzen ere:

a) Jabearen edota animaliaaren datuen aldaketak.

b) Jabe aldaketak.

c) Txakurraren baja, hil delako edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora behin betiko eraman delako.

d) Txakurra desagertzea (galdu edo lapurtu).

10 eguneko epean eman beharko da horren berri, baina txakurra galdu edo norbaitek lapurtu badu, orduan epea 48 ordukoa izango da, galtzen edo salaketa aurkezten denetik zenbatzen hasita (salaketaren kopia erakutsi beharko da).

Aldaketa eskatzeko edo gertakaria jasotzeko, udalean edo foru aldundian, edo gaitutako albaitarien bulegoetan, eskuragarri egongo den agiria erabiliko da, eta agiri horri NANaren fotokopia bat gehitu beharko zaio. Aurreko a), c) eta d) puntuetan azaldutako kasuetan interesdunak alea bidali behar du AIEOra.

Izatez, b) idatz zatian xedatutako kasuetan, hau da, salmenta, dohaintza edo indarrean da goen legerian ezarritako beste moduren bat erabilita eskualdatze bat egiten denean, parte hartzen duten aldeek aldaketa eskatzeko agiria bete beharko dute, agiri horrek zenbaki bat eramango duelarik, eta lau ale bete beharko direlarik. Kartilla ofizialaren eskualdaketa idatzoharra eta ikusi-onespena udalaren Osasun Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiak edo gaitutako albaitariak egin behar ditu (dokumentuaren zenbakia agertu behar da). Ale bat parte hartu duen erakunde edo albaitariaren eskuetan geratuko da, beste ale bat eskualdatu duenaren eskuetan, eta beste bi aleak, berriz, jabe berriak jasoko ditu. Jabe berri horrek AIEOra bidali beharko du ale bat, eskualdatzea egiten den egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Txakurra saldu edo laga ahal izateko ezinbestekoa izango da jabe berriari txakurra behar bezala identifikatuta eta erroldatuta ematea, baita kartilla ofiziala eguneratua ematea ere.

Artikulu honetan adierazi diren erroldatzeari buruzko aldaketak Erregistroari ez jakinaraztea arau haustea izango da, Animaliak babesteko Legearen 27.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. artikulua. Txakurra edukitzeak dakartzan betebeharrak

1. Kode Zibileko 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, txakurra daukanak hark egiten dituen kalteen, galeren eta eragozpenak erantzukizuna edukiko du.

2. Txakurra daukanak beharrezko neurriak hartu behar ditu haren gorozkiak bide eta espazio publikoetan geratu ez daitezen.

Idatz zati honetan ezarritakoa ez betetzea arau hauste arina izango apirilaren 21eko 10/1998 Legeak, hondakinei buruzkoak, 34.4.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori guztia gorabehera, lege horren arabera neurri osagarriak ezar daitezke.

3. Erroldatua edota erregistratua egon behar duen txakurra daukanak, edo berak baimendutako norbaitek, txakurraren galera salatu behar du.

6. artikulua. Animalia edukitzeko baldintzak

1. Oro har, etxean txakurrak eduki daitezke.

2. Eskumendun udal agintaritzak mugak jarri ahal izango dizkie txakurrak edukitzeko baimenari edota eduki ahal diren txakurren kopuruari ondokoak kontuan hartuta: txakurren bizitokiaren ezaugarriak, instalazioen egokitasuna, higiene eta osasun egoera, eta arriskurik edo eragozpenik sortzen den auzokoentzat edo beste edozein pertsonentzat edo txakurrentzat eurentzat.

Udal agintaritzak interesdunari eskatu diezaioke txakurraren edukitzari edo eskueran jartzeari buruzko informazioa eta agiriak emateko. Eskatutakoa ez betetzea arau hauste larria izango da, ordenantza honetako 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

7. artikulua. Zer egin txakur abandonatuekin

1) Abandonatutako txakurrak Administrazioak jasoko ditu bere zerbitzu baten bidez edo itundutako baten bidez. Txakurrak harrapatzeko eta garraiatzeko erabiliko diren baliabideak egokiak izango dira higienearen eta osasunaren aldetik; animaliek ez dute jasan behar oinazetik premiarik gabe.

2. Aurreko puntuan aipatzen diren txakurrak haiek biltzeko zentroan egongo dira legez ezarritako aldirian (zehaztu epea) edo Arabako Foru Aldundiak itundutako Animaliak Babesteko Zentroak animaliak jasotzeko finkatzen duen egunera arte. Jabeak berreskuratu nahi badu, jabea dela egiaztatu eta animalia mantentze eta egonaldi gastuak ordaindu beharko ditu.

Osasun, arrisku edo oinaze arrazoiak tartean direlako, eta adierazitako zerbitzuko albaitariaren iritziarekin bat, epe hori behar beste murriztuko da.

3) Aldi horretan identifikatu gabeko txakurra inork erreklamatzeko ez badu, neurri hauetako bat aplikatu ahal izango da: txakurra dagoen herriko udalaren esku geratu, eskatzen duen pertsona bati laga (osasun egoera administratiboa erregularizatu beharko du ordenantza honetako I. eranskinean ezarritakoaren arabera) edo, azken aukera moduan, sakrifizio eutanasiak gauzatu.

Noiznahi, konpainiako txakur baten zaintza beste pertsona fisiko zein juridiko baten esku utzi ahal izango da aldi baterako.

4) Txakurra identifikatuta badago, jabea jakinaraziko zaio, modu frogagarrian, animalia jaso edota hartu egin dela, eta jabeak zazpi egun baliadun izango ditu animalia berreskuratzeko, harrera zentro horretan edukitzeak eragin dituen gastuak ordaindu ondoren. Epe hori igaro eta jabeak txakurra berreskuratu ez badu, aurreko paragrafoan adierazitakoa aplikatuko da.

5) Txakurrak konortea galarazi ondoren hilko dira, sufrimendurik ematen ez duten prozeduren bidez, albaitari baten kontrol eta erantzukizun pean.

8. artikulua. Kaleko txakurrak

1) Txakurrek gizakiei eta beraien ondasunei eragozpenik ez sortzeko eta arriskuak ekiditeko, herritarrek Udalaren osasun zerbitzuei eman behar diete kalean noraezean edo abandonatuta ikusten dituzten txakurren berri.

2) Debeekatuta dago kaleko txakurrei jaten ematea herri bideetan eta orubeetan.

Paragrafo honetan ezarritakoa ez betetzea arau hauste izango da ordenantza honetako 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

3) Herri barruan txakurrak kontrolik gabe ugalduz gero, udal agintariak populazioa kontrolatzeko behar diren neurriak ezarriko dituzte.

GASTUAK:

A) Txakurra identifikatuta badago:

Jabearen kontura izango dira txakurra udal zentrora edo animaliak babesteko zentrora eramaten denetik animaliak babesteko zentroa hartaz jabetu arte sortzen diren gastuak.

Animaliak babesteko zentroa txakurraz jabetzen denetik sortzen diren gastuak zentroaren kontura izango dira.

B) Txakurra identifikatuta ez badago:

Udalaren kontura izango dira txakurra biltzen denetik animaliak babesteko zentroko egonaldia amaitu arte (hau da, beste pertsona bati eman edo hil arte) sortzen diren gastuak.

9. artikulua. Zer egin txakurrak norbaiti eraso eginez gero

1) Txakur batek norbaiti eraso egin diolako salaketa jaso edo horren berri jakiten duen udal zerbitzuak eraso egin duen animalia edota haren jabea identifikatzen lagunduko duten datuak eskatuko dizkio salatzaileari edo gertatutakoaren berri eman duenari, eta gero datuok berehala jarriko ditu administrazio espedientearen izapideak egin behar dituen agintaritzaren eskuetan, hau da, txakurra erroldatuta dagoen udalerriko udalaren eskuetan (erroldatuta ez badago, jabea bizi den udalerrikoa), eta dokumentazio guztia bidaliko dio.

2) Animaliak erasoan norbaiti hozka egin badio eta ondorioz lesioren bat sortu badio, izapideak egiteko eskumena daukan erakundeak espedientea ireki dela jakinaraziko die Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari.

Lesioa egin duen txakurraren jabeak edo edukitzaileak 24 orduko epealdia edukiko du berak hautatutako albaitari ofizial edo gaitu batengana eramateko animalia. Txakurra hamalau egun egon behar da behaketan; nolahi ere, aldia txakur motaren arabera izan daiteke, bai eta kasuan kasuko egoera epizootiologikoaren arabera ere. Horrelakoetan txosten teknikoan behaketa aldia aldatzeko arrazoiak zehaztu behar dira. Txakurrak norbaiti hozka egin dionetik 24 ordu pasatu baino lehen jabeak ez badu eramaten bere borondatez albaitariarenera, udal agintaritzak eskudunak eramateko eskatuko dio; horrez gain, txakurrak biltzeko zentro batean sartzeko edota bakartzeko ere agindu ahal izango du (II. eranskina).

Errekerimendu hori ez betetzea arau hauste larria izango da ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko osasunaren antolamenduarenak, 36.2.b.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hori gorabehera, errekerimenduan eskatutakoa betetzeko behar diren kautelazko neurriak ezar daitezke. Edonola ere, egiten den txostenaren edo egiaztagiriaren kostua txakurraren jabeak edo edukitzaileak ordaindu beharko du. Txakurraren jabea edo edukitzailea nor den jakin ezean, gertatutakoaren berri eduki duen udal zerbitzuak edukiko du animalia bildu eta behaketan jartzeko ardura. Espedientearen izapideak egiteko eskumena daukan udalari behaketan dagoela jakinarazi beharko zaio eraso gertatu denetik 72 orduko pasatu baino lehen.

Albaitariaren behaketak bi helburu dauzka: zoonosi arriskua dagoen ala ez jakitea eta animalien arriskua ebaluatzea. Behaketaren ondorioak III. eranskinean dagoen ereduaren arabera egiaztagirian / txostenean azalduko ditu.

Behaketa amaitutakoan jabeak edo edukitzaileak 48 orduko epealdia edukiko du albaitariaren egiaztagiria / txostena bidaltzeko espedientea izapidetzeko eskumena daukan agintaritzari (lehen paragrafoan azaldu da), espedientearen sar dezan. Agintaritzak horrek albaitariaren egiaztagiri edo txostenaren kopia bidaliko die Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Zerbitzuari. Behaketak ageria jartzen badu txakurrak osasun arriskua daukala, udal agintaritzak administrazioak txakurra zentro batean sartzeko edo egonaldia luzatzeko edota bakartzeko agindu ahal izango du.

3) Erasoan txakurrak inori lesiorik egin ez badio hozka eginez, jabeak edo edukitzaileak berak nahi duen albaitari ofizial edo gaitu batenera eraman beharko du arriskurik daukan ala ez ebaluatzeko. Ebaluazioa albaitariak beharrezkotzat jotzen duen beste luzatuko da; amaitutakoan egiaztagiria egingo du eta jabeak espedientearen izapideak egiteko eskumena daukan agintaritzari bidali beharko dio.

10. artikulua. Debekuak

1. Ondoko hauek berriaz daude debekatuta:

a) Txakurrei tratu txarrak ematea edo bidegabeko sufrimendua, kalteak eta larritasuna sorrarazi ahal dizkieten gauzak egitea.

b) Txakurrak abandonatzea.

c) Ordenantza honetan aipatzen diren espezieetako animalien gorpuak bide publikoan abandonatzea; halakoren bat ikusiz gero, udal zerbitzu egokiari jakinarazi behar zaio, behar dena egin dezan.

d) Bizirik irauteko beharrezko elikadura ez ematea edota higienearen eta osasunaren aldetik egokiak ez diren establezimenduetan edukitzea.

e) Mutilazioak egitea, salbu eta beharrezkoak izateagatik, funtzionaltasunagatik edo arrazaren ezaugarriak mantentzeagatik albaitariak kontrolatuta egiten badituzte.

f) Drogak edo botikak ematea, eta min fisikoa zein psikikoa egin ahal dieten manipulazio artifizialak burutzea, nahiz eta helburua lehiaketa batean errendimendua handitzea izan.

g) Txakurren berezko izaerarekin bat ez datozen portaerak eta jokaerak behartzea edo tratu umiliagarria ematea.

h) Animalien arteko borrokak.

i) Txakurrak bide publikoan hiltzea, salbu eta premia larrian eta ezinbestean izaten bada.

j) Txakurrak 14 urtetik beherako pertsoneri eta ezintasuna duteneri saltzea, ematea edo lagatzea tutoretza edo guraso agintea daukanak baimenik eman gabe.

k) Txakurrak kalez kale edo bide publikoan saltzea edo lagatzea, azoka edo merkatu baimenduetan izan ezik.

l) Txakurrak laborategiei edo klinikei saltzea administrazioaren kontrolik gabe.

m) Txakurrak publizitaterako edo sari edo ordain gisa dohaintzan ematea; salbuespena: txakurrak kostu bidez eskualdatzearen ondoriozko negozio juridikoak.

n) Babestutako espezieetako txakurrak saltzea, edukitzea eta erakustea, berariazko legerian ezarritakoaren arabera.

2. Ondoko hauek ere berariaz debekatuta daude:

a) Janariak fabrikatzeko, saltzeko, gordetzeko, garraiatzeko eta manipulatzeko erabiltzen diren lokaletan eta ibilgailuetan sartzeta eta egotea txakurrak, osasunaren arloko agintaritzak baimena ematen duenean izan ezik.

b) Txakurrak ikuskizun publikoak egiten diren lokal, esparru eta espazioetan sartzeta eta egotea, bai eta igerileku publikoetan, osasun lokaletan eta antzekoetan, hondartzetan eta jendetza bildu ohi den heziketa, kultura edo aisialdiko establezimenduetan ere (baldin eta establezimenduen berariazko arautegian debekatuta badago).

c) Herritarrentzat irekita dauden bestelako establezimenduetako jabeek txakurrak beraietan sartzeta eta egotea debekatu ahal dute; debekua sarreran agertu behar da argi eta garbi.

d) Txakurrak leku komunitario pribatuetan (kultura elkarteak, aisialdiko elkarteak, auzo erki-degoen erabilera komuneko gunek, etab.) sartzeari eta egoteari erakunde horien arautegiak aplikatuko zaizkie, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoa gorabehera.

e) Txakurrak balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, azoteetan, lorategietan eta beste hiri lokal eta lursail guztietan sarritan egotea edo estabulatuta edukitzea, auzokoei edo igaroleei eragozpen objektiboak sortzen badizkiete.

f) Etxeko txakurrak parkeetan, lorategi publikoetan eta hiriko lursailetan estabulatuta edo erdiestabulatuta edukitzea.

g) Txakurrak aske uztea jende asko dabilen aire zabaleko lekuetan eta jendearentzat irekita dauden lokaletan. Batez ere, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak, txakur basatiak eta kaltegarri edo anker ospea duten txakurrak, berariazko tokietan eta guneeetan edo parke zoologikoetan izan ezik.

h) Txakurrak zortzi ordu jarraian baino luzeago edukitzea lotuta.

i) Txakurrak etxean bakarrik hiru egun jarraian baino luzeago uztea.

11. artikulua. Salbuespenak

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, ikusmen arazoa duten pertsonak txakur gidariarekin sartu daitezke leku, ostatu, establezimendu, lokal eta garraio publikoetan. Besteak beste, ospitale publiko zein pribatuetan sartu daitezke, eta osasun sorostegietan ere bai.

2. Eskatuz gero, ikusmen arazoa daukan pertsonak txakurra bere gidaria dela frogatu behar du, bai eta osasunaren arloko baldintzak betetzen dituela ere.

3. Txakur gidariak erasokor itxura badauka edo ematen badu gaixo edo zikin dagoela edo arriskutsua izan daitekeela pertsonentzat, ezin izango da sartu aurreko artikuluan esandako lekuetara.

12. artikulua. Txakurren joan-etorriak Batasunaren barruan

Txakurra, katua edo hudoa daukan pertsona batek animalia berarekin eraman nahi badu Europar Batasunaren barruko ostera batean, ezinbestekoa izango du Nekazaritza eta Arrantza sailburuak 2004ko irailaren 27an emandako Aginduan (edo horren ordezkio arautegian) araututako pasaporteak, albaitari ofizialak edo gaituak egindakoa.

**II. KAPITULUA - ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN
TXAKURREI BURUZKO XEDAPEN BEREZIAK****13. artikulua. Araubide orokorra**

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrei (ordenantza honetako 3. artikuluan zehaztu da zeintzuk diren) ondokoak aplikatuko zaizkie: abenduaren 23ko 50/1999 Legea, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko lege araubideari buruzkoa, lege hori garatu duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua, eta aplikatu beharreko gainerako arau guztiak.

14. artikulua. Baimena

1. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen babesean arriskutsua izan daitekeen txakurra edukitzeko ezinbestekoa da administrazio lizentzia lortzea, hain zuzen ere eskatzailea bizi den udalerriko udalak emana (edo, bestela, salerosketa edo txakurraren trebakuntza egin den udalerriko udalak, bestea jakinaren gainean dagoela), ondoko betekizun hauek betetzen direla egiaztatu ondoren:

a) Adinez nagusia izatea.

b) Hilketa, lesio edo torturengatiko, askatasunaren edo osotasun moralaren, sexu askatasunaren eta osasun publikoaren aurka egiteagatiko, edo talde armatu edo narkotrafikatzaile batekin lotura izateagatiko delituengatik kondenatuta ez egotea, eta ebazpen judizial batek arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko eskubidea kenduta ez edukitzea.

c) Abenduaren 23ko 50/1999 Legeak, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoak, 13. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako arau hauste larri edo larria egiteagatik inoiz zehapenik jaso gabe egotea.

d) Hala ere, zehapen batek lizentzia aldi batez eteten badu, zehapena jaso izanak ez du eragotziko beste lizentzia bat lortu edo lehengoa berritu ahal izatea, baldin eta lizentzia eskatzerakoan etenaldia amaituta badago.

e) Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko gaitasun fisikoa eta gaitasun psikologikoa edukitzea.

f) Hirugarrenei egiten zaizkien kalteak (gutxienez ehun eta hogeita mila euro, 120.000) estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu dela frogatzea.

g) Ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 13.3.e) eta 12. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, arriskutsua izan daitekeen txakurra duten pertsonak aurreko idatz zatian aipatutako aseguruak txakurra identifikatzen denetik hamar egun pasatu baino lehen kontratatu behar dute,

txakurra behar den erregistroan sartu aurretik. Aseguru hori beste bati atxikita egon daiteke; dena dela, kontratatu dela frogatzeko aseguru etxeak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da, 101/2004 Dekretuaren III. eranskineko ereduaren arabera. Ziurtagirian berariaz azaldu behar dira aseguruaren estaldurak hartzen duen txakurraren identifikazioa eta estalduraren indarraldiaren lehen eguna eta azken eguna.

h) Txakurraren jabearen ardura izango da animalia bizi den artean erantzukizun zibileko aseguru baten babespean edukitzea eta aseguruaren indarrean mantentzea behar den guztietan berrituta.

i) 1. paragrafo honetako b) eta c) idatz zatietan ezarritako betekizunak betetzen direla frogatzeko, kasuan kasuko erregistroek emandako ziurtagiri negatiboak aurkeztu behar dira. Gaitasun fisikoa eta psikologikoa frogatzeko, martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritako ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

2. 50/1999 Legean xedatutakoari jarraituz, administrazio lizentzia interesdunak eskatuta eman edo berrituko du eskumena daukan udal organoak, aurreko idatz zatian ezarritako betekizunak egiaztatu ondoren.

3. Lizentziak bost urteko indarraldia edukiko du eta bost urtetik bost urtera berritu ahaliko da. Edonola ere, lizentzia baten titularrak aurreko idatz zatian ezarritako betekizunetako bat betetzen ez badu, lizentziaren indarraldia amaitu egingo da. Lizentziako daturen bat aldatuz gero, titularrak hamabost egun pasatu baino lehen jakinarazi beharko dio aldaketa lizentzia emateko eskumena daukan organoari.

4. Bide judiziala edo administratiboa erabiliz emandako administrazio baimen bati kaute-lazko neurriak ezartzen bazaizkio edo baimen hori kentzen bada, ez da emango baimen berririk eta ez da berrituko baimenik harik eta egoera hori aldatu arte.

5. Artikulu honetako 1. paragrafoan eskatutako betekizunak bete gabe emandako baimenek ez dute inolako baliorik izango eta, beraz, titularrak ez daukala baimenik pentsatuko da.

15. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren erregistroa

1. Baimenaren titularrak eskatu behar du arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal erregistroan inskribatzeko txakurra, baimena eskuratu eta hurrengo egunetik hamabost egun pasatu baino lehen.

2. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal erregistroari ondokoen berri eman behar zaio: txakurraren salmenta, eskualdaketa, dohaintza, lapurreta, heriotza eta galera. Gertaera horiek erregistro orrietan azaldu behar dira.

3. Arriskutsua izan daitezkeen txakurra Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko udalerrri batera eraman nahi izanez gero, betiko edo hiru hilabetetik gorako aldi baterako, jabeak nahitaez egin behar ditu egin beharreko inskripzioak udal erregistroetan.

4. Txakurraren titularrak artikulu honetan agindutakoa betetzen ez badu, administrazio zeha-pena ezarriko zaio 50/1999 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

16. artikulua. Segurtasun neurriak

1. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek, hazleek eta edukizailleek indarrean dagoen legerian herritarren segurtasunerako ezarritako arau guztiak bete behar dituzte, txakurren eta gizakion arteko elkarbizitza egokia bermatzeko eta herritarrei eragozpenik ez sortzeko.

2. Arriskutsua izan daitezkeen txakurra leku edo espazio publikoetan egoteko ezinbestekoa da haren kargura dagoen pertsonak aldean edukitzea ordenantza honetako 17. artikuluan aipatzen den administrazio baimena eta txakurra arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

3. Arriskutsua izan daitekeen txakurrak lotuta egon behar dira finka, landetxe, txalet, lurzati, terraza, patio edo mugatutako bestelako esparruetan; salbu eta txakurrarentzako bizitegi egokia badago, azalera, altuera eta itxitura egokiak dauzkana, hurbiltzen edo sartzen diren pertsonak eta txakurrak babesteko; halakoetan txakurrak ez dauka lotuta egon beharrik.

4. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak hazten, hezten eta saltzen dituztenek animalio egoteko instalazio eta baliabide egokiak eduki beharko dituzte.

5. Arriskutsua izan daitekeen txakurra lapurtzen badute edo galtzen bada, jabeak gertatutakoaren berri eman behar dio arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal erregistroko arduradunari zer gertatu den jakin denetik berrogeita zortzi ordu pasatu baino lehen.

17. artikulua. Salbuespenak

Inguruabar jakin batzuetan jabeek ez dute edukiko zertan bete betekizun batzuk; hona kasuak:

a) Txakurrak funtzio sozial baterako erabiltzen dituzten erakunde publikoak eta pribatuak.

b) Ganadua zaintzeko, babesteko eta kargutzeko txakurrak erabiltzen dituzten nekazaritzako ustiategiak eta ehizarako erabiltzen diren txakurrak. Txakur horiek ezin dira inolaz ere erabili 50/1999 Legean ezarritako legez kontrako jardueretan.

c) Lan eta kirol probak, parte hartuko duten txakurrak aukeratzeko egiten direnak erakunde eskudunak baimenduta eta ikuskatuta. Salbuespen honetan ez dira sartzen borroka eta eraso ariketak, indarreko araudian eta ordenantza honetan ezarritakoarekin bat etorritz.

18. artikulua. Garraioa

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak animalien ongizateari buruzko araudi berezian ezarritakoaren arabera garraiatu behar dira. Inguruabarrek eskatzen dituzten neurriak hartu behar dira pertsonen, ondasunen eta beste animalien segurtasuna bermatzeko garraio aldietan, itxaronaldietan eta zama lanetan.

III. TITULUA. ANIMALIEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK

GUNE ZOOLOGIKOAK

19. artikulua. Araubide orokorra

1. Apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuak, gune zoologikoenak, edo hura ordeztzen duen araudiak ezarritakoa aplikatuko zaie gune zoologikoei.

2. Horrez gain, gune zoologikoen jardun aurretik udal lizentzia eskuratu behar dute, Euskal Herriko Ingurumenaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean, lizentzia hori eskuratu beharrik ez duten jardueren zerrenda finkatu duen 165/1999 Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako araudietan zehaztu den bezala.

IV. TITULUA. IKUSKARITZA ETA KONTROLA

20. artikulua. Ikuskapena eta kontrola

1. Ordenantza honetan araututako gaien ikuskapena eta kontrola udaltzainen edo beste funtzionario batzuen egitekoak izango dira. Pertsona horiek agintaritzaren agenteak izango dira; ikuskapen eta kontrol lanen akta egin ahal izango dute (interesdunak ez dagoela ados adieraz dezake) eta gero interesdunari jakinaraziko zaio salaketa akta edo buletinaren bidez, eta eskumena daukan organoari bidaliko zaio beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har ditzan eta, behar izanez gero, zehapen espedientea ireki dezan.

2. Arauak haustea delitua edo falta bada, zehapena ezartzeko eskumena daukan administrazio organoak gertakarien berri emango dio jurisdikzio penalari, eta zehapen prozedura bertan behera utziko du ebazpen judicial irmoa eman arte, eta preskripzio aldia ordura arte etenda geldituko da.

3. Epaitegiek esku hartu aurretik administrazio espedienteak izapidetzen dituzten agintariek hartutako kautelazko neurriek indarrean jarrai dezakete agintari judizialek gai horri buruz berriaz zerbait adierazi arte.

V. TITULUA. ZIGOR ARAUBIDEA

XEDAPEN OROKORRAK

21. artikulua. Arau haustek eta zehapenak

1. Administrazio arau haustek izango dira jarraian aipatutako testuetan halakotzat tipifikatutako ekintzak eta omisioak: urriaren 29ko 6/1993 Legea, animalien babesarena; abenduaren 23ko 50/1999 Legea, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko lege araubideari buruzkoa; apirilaren 21eko 10/1998 Legea, hondakinena; ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko osasun antolamenduarena, eta ordenantza hau, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak, udal gobernua modernizatzeko neurrienak, gehitutako apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluaren xedatutakoaren arabera.

2. Administrazio arau haustek artikuluko honetako aurreko idatz zatian aipatutako arautegian xedatutakoaren arabera zehatuko dira; nolana ere, arau haustek modu zuzenagoan identifikatzeko eta zehapenak hobeto zehazteko ordenantza honetan arau hausteez eta zehapenen mailakatzeaz ezarritakoa aplikatuko da.

1. atala. Animalien babesa

22. artikulua. Arau haustek

1. Ondoko hauek arau hauste arinak dira:

a) Ordenantza honek ezarritako betebeharrak ez betetzea, herritarren higienean, segurtasunean edota lasaitasunean ondorio larriak ez badauka.

b) Erroldan identifikaturik ez dagoen laguntzako txakurra edukitzea, erroldako identifikazioa beharrezkoa denean.

c) Txakurrak ordenantza honetan ezarritakoa bete gabe garraiatzea.

d) Txakurrak behar bezala zaindu eta artatu ezin diren lekuetan edukitzea.

e) Txakurrei tratu txarrak ematea edo haien berezko izaerarekin bat ez datozen portaerak eta jokaerak behartzea.

f) AIEOri ez ematea erroldako identifikazioaren berri edo txakurren erroldako identifikazioaren aldaketaren berri (ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoaren, 3. artikulua).

2. Ondoko hauek arau hauste larriak dira:

a) Txakurrak beharrezko janari, edari eta osasun arretarik gabe edukitzea edo beharrezko fisiologiko eta etologikoetarako espazio aldetik eta higienaren eta osasunaren aldeetatik egokiak ez diren instalazioetan edukitzea.

b) Txakurrak esterilizatzea, mutilatzea edo sakrifikatzea alibaitariaren kontrolik gabe edo Txakurren babesaren Legean eta hura garatu duten arauetan (batez ere ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 9. artikuluan) ezarritakoa aintzat hartu gabe.

c) Txakurrei txertorik ez jartzea eta nahitaez eman beharreko tratamenduak ez ematea.

d) Txakurrak baimenik gabe saltzea.

e) Txakurrei tratu txarrak ematea edo erasotzea eta ondorioz behar ez diren oinazeak, lesioak edo mutilazioak eragitea.

f) Txakurrei bidegabeko oinazeak edo kalteak egin diezazkieketen substantziak ematea zuzenean zein janarian.

g) Besteei kalte egin diezazkieketen txakurrak behar bezala zainduta eta gordeta ez edukitzea.

h) Txakurrak kontrolik gabe ibiltzea hiriguneetako bide eta espazio publikoetan, eta higiezin kolektiboetako esparru komunetan, hain zuzen ere kate edo uhal egokia jarri gabe (bi metro luze gehienez).

i) Txakurra albaitariarenera ez eramatea agerikoa eta larria den gaitza edo sufrimendua jasan arren.

j) Txakurrak ikuskizunetan erabiltzea administrazio baimen egokia eduki gabe.

k) Zehapen espedienteari ekin aurreko bi urteetan ebazpen irmoaren bidez zehapena ekarri duten hiru arau hauste arin egin izana.

l) Ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 5.1 eta 2. artikuluetan txakurrak edukitzeko azalera ratioari buruz ezarritakoa eta artikuluko horietan aipatutako ibilgailu eta lokaletan txakurrak sartu eta egoteari buruz ezarritakoa ez betetzea.

m) Ekainaren 1eko 10/2004 Dekretuaren 7. artikuluan txakur jakin batzuk edukitzeko ezarritako baldintza bereziak ez betetzea.

n) Establezimenduek ez betetzea animaliak aldi batez edukitzeko, hazteko edo saltzeko ezarritako baldintzak eta urriaren 29ko 6/1993 Legeak, txakurren babesari buruzkoak, eta hura garatu duten arauak ezarritako betekizunak eta baldintzak. Gainera, apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuaren, gune zoologikoei buruzkoaren, arabera:

- Dekretuaren 7. artikuluan aipatzen den erregistro liburua ez edukitzea.
- Erregistro liburuak bete gabe egotea edo horietan datuak faltatzea.
- Txakurren salmentan, edukitzan, trafikoan, merkataritzan eta erakusketan CITES arautegia eta irailaren 16ko 1881/1994 Errege Dekretua ez betetzea.
- Erregistroan inskribatuta ez egotea edo funtzionamendurako baimena ez edukitzea.
- Aldaketak baimenik gabe egitea edo erregistroari zentroan edo establezimenduan egindako aldaketak ez jakinaraztea.
- Ikuskapen lan ofizialak eragozteko edo egiten ez laguntzea.

3. Ondoko hauek arau hauste oso larriak dira:

a) Txakurrak akabatzea, eraso eginda nahiz substantzia toxikoak emanaz.

b) Txakurra abandonatzea.

c) Txakurrekiko krudelkeria nahiz tratatu txarra edo haien oinazea tarteko deneko eszenarik filmatzea.

d) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten txakurrei honakoak ematea: anestesiak, drogak eta bestelako produktuak haien mantsotasuna, errendimendu fisikoa edo bere izaerari ez dagokion beste edozein portaera lortzeko xedez.

e) Txakur arraza arriskutsuak haztea nahiz gurutzatzea.

f) Bide eta leku publikoetan janari pozoituak uztea.

g) Txakurrei debekatutako ikuskizunetan parte harraraztea.

h) Ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso duten hiru arau hauste larri egin izana, zehapen espedienteari hasiera eman aurreko bi urteetan.

23. artikulua. Zehapenak

1. Urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babestearenak, xedatutakoaren arabera, txakurren babesaren arloko arau hausteengatik honelako isunak ezarriko dira:

- a) Arau hauste arinen isunak: 30,05 eta 300,51 euro bitartean.
- b) Arau hauste larrien isunak: 300,52 eta 1.502,53 euro bitartean.
- c) Arau hauste larrien isunak: 1.502,54 eta 15.025,30 euro bitartean.

2. Zehapenen zenbatekoak urtero eta automatikoki eguneratuko dira aurreko urteko zehapenaren zenbatekoari kontsumorako prezioen indizea aplikatuta.

3. n) idatz zatian araututako arau hauste larrien zehapenak apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuak, gune zoologikoenak, 13. artikuluan ezarritakoaren arabera ezarriko dira.

24. artikulua. Zehapen osagarriak

1. Animaliarene osotasun fisikoa bermatzeko beharrezkoa izanez gero, zehapena ezartzen duen ebazpenak arau haustea eragin duen txakurra konfiskatzeko aginduko du.

2. Konfiskatutako txakurrak berariaz prestatutako instalazioetan edukiko dira; ahal dela, beste pertsona baten esku utziko dira eta, bestela, halakorik ezean, hil egingo dira.

3. Arau hauste larria edo oso larria egiten duenaren zehapena instalazioa, lokala edo establezimendua aldi baterako itxi beharra izan daiteke: gehienez bi urte, arau hauste larria egin bada, eta lau urte, oso larria eginez gero. Horrez gain, beste txakurrik eskuratzeko debekua ezar daiteke (lau urte gehienez).

4. Arau hauste larri bat egiten denetik hiru urte pasatu baino lehen beste bat egiten bada, administrazio baimena galduko da.

25. artikulua. Zehapenen mailak

1. Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. paragrafoan ezarritako zehapenen iraupena zehazteko, ondoko inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

- a) Arau hausteak gizartean eta osasunean daukan eragina eta egindako kaltea.
- b) Legez kanpoko irabazteko asmoa eta lortutako irabaziaren zenbatekoa.

c) Arau hausteak behin eta berriro egin izana. Ordenantza honetan ezarritako arau hausteetako bat behin eta berriro egiten da, pertsona bati administrazio bideko ebazpen irmoaren bidez beste zehapen bat ezarri bazaio zehazpen espedientea hasi baino bost urte lehenago.

d) Arau haustea astunago edo arinago izatea eragiten duten gainerako inguruabar guztiak. Horretan eragin berezia edukiko du txakurrekin indarkeria erabiltzeak aurrean haurrak edo desgaitu psikikoak daudela.

2. Analogiaz aplikatuko dira, ahal den neurrian eta kasuan kasuko administrazio sektoreko berezitasunek eskatzen dituzten ñabardurekin eta egokitzapenekin, zuzenbide kontraktotasunaren eta erruduntasunaren salbuespenari buruzko zehapen arauak; edonola ere, sektore horretako beste gorabehera garrantzitsu batzuei erantzungo zaie, ondorio berdinetarako.

3. Gertaera batengatik arau desberdinetan sailkatutako administrazioaren arloko bi arau hauste edo gehiago eginez gero, zenbateko handiena ordaindu beharra dakarren zehapena ezarriko da, eta espedientea irekitzeko eta ebazteko eskumena zehapena ezartzeko ahalmena daukan organoa izango da.

26. artikulua. Zehapenak ezartzeko eskumena

1. Urriaren 29ko 6/1993 Legeak, animaliak babestearenak, araututakoaren arabera foru organoek zehapenak ezartzeko eskumena badute ere, ordenantza honen aurkako arau hausteen zehapenak udalak ezarriko ditu.

2. Indarrean dagoen legeriak udalari emandako ahalmenen artean, alkate-lehendakariak dauka eskumena arintzat jotzen diren arau hausteen espedienteak irekitzeko eta ebazteko.

3. Udalbatzak dauka larritzat jotzen diren arau hausteak ebazteko eskumena.

4. Oso larritzat jotzen diren arau hausteen zehapenak foru organo eskudunak ezarriko ditu, lehen aipatutako legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (txakurrak abandonatzeagatik egiten diren arau hauste oso larrien espedienteak bideratzeko eta ebazteko eskumena foru organo eskudunei eskuordetu zaie).

5. Alkate-lehendakariari eskuordetzen zaio larritzat jotzen diren arau hausteen zehapenak ezartzeko eskumena.

27. artikulua. Kautelazko neurriak

1. Arauak haustea delitua edo falta bada, zehapena ezartzeko eskumena daukan administrazio organoak gertakarien berri emango dio jurisdikzio penalari, eta zehapen prozedura bertan behera utziko du ebazpen judizial irmoa eman arte eta preskripzio aldia ordura arte etenda geldituko da.

2. Epaitegiek esku hartu aurretik administrazio espedienteak izapidetzen dituzten agintariak hartutako kautelazko neurriak indarrean jarrai dezakete agintari judizialek gai horri buruz berriaz zerbait adierazi arte.

3. Zehapen espedientea abiarazi ondoren espedientearen inktoreak ondoko kautelazko neurri hauek ezarri ahal izango ditu beste arau hausterik gerta ez dadin (arrazoia azaldu behar ditu):

a) Lege honetan debekatutako zerbait jasan duelako zantzuak ageri dituzten txakurrak atxikitzea eta animaliak biltzeko zentro batean sartzea.

b) Instalazioa, lokala edo establezimendua modu prebentiboan ixtea.

4. Kautelazko neurria eragiten duten arazoiek irauten duten artean egongo da indarrean; hala ere, txakurra jabeari kenduz gero, egoera hori ezain da luzatu espedientearen ebazpen irmoa eman ondoren, eta lokalaren edo dena delakoaren itxierak ere ezin du iraun urriaren 29ko 6/1993 Legearen, animalien babesari buruzkoaren, 29.2 artikuluan ezarritako epealdiren erdia baino gehiago.

28. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Ordenantza honetan araututako arau hausteak honela preskribatuko dira: arinak lau hilabete pasatutakoan, larriak urtebete pasatutakoan eta oso larriak bi urteren buruan.

2. Arau haustea egiten den egunean hasiko da arau hausteen preskripziorako epea.

3. Zehapena bost urteren buruan preskribatuko da zenbatekoa 305,00€ eurokoa edo hortik gorakoa bada, eta urtebete pasatutakoan, berriz, zenbateko horretatik beherakoa bada.

4. Zehapenen preskripzio epea zehapena jartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

2. atala. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak

29. artikulua. Arau hausteak

1. Abenduaren 23ko 50/1999 Legearen, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko araubide juridikoari buruzkoaren, arabera arau hauste administratiboak dira bertan tipifikatutakoak.

2. Arau hauste oso larriak dira:

a) Arriskutsua izan daitekeen txakurra, edozein espeziekoa, abandonatzea. Hauxe da txakur abandonatua: pertsona batekin ez dabilen txakurra, jatorriaren eta jabearen identifikaziorik ez daukana zein behar bezala identifikatuta dagoena.

- b) Txakurrak edo arriskutsu izan daitezkeen txakurrak baimenik gabe edukitzea.
- c) Txakurra edo arriskutsu izan daitekeen txakurra baimenik ez duen pertsonari saltzea edo eskualdatzea, edozein tituluren bidez.
- d) Txakurrak erasokorrak izateko edo debekatutako gauzak egiteko trebatzea.
- e) Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak trebatzea horretarako behar den ziurtagiria eduki gabe.
- f) Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren oldarkortasuna erakusteko lehiaketak, ariketak, erakusketak eta ikuskizunak antolatzea edo egitea.

3. Honako hauek arau hauste larriak dira:

- a) Arriskutsua izan daitekeen txakurra aske uztea edo halako txakur batek ihes ez egiteko edo ez galtzeko behar diren neurriak ez ezartzea.
- b) Animalia identifikatu beharra ez betetzea.
- c) Erregistroan ez inskribatzea.
- d) Arriskutsua izan daitekeen txakurra leku publiko batean edukitzea muturrekorik gabe edo katearekin lotu gabe.
- e) Arriskutsua izan daitekeen txakurra garraiatzean 50/1999 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa ez betetzea.
- f) Agintaritza eskudunek edo haien agenteek 50/1999 Legeak ezarritako eginkizunetan eskatzen dituzten datuak edo informazioa ez ematea edo emateko eragozpenak jartzea, bai eta okerreko informazioa edo dokumentazio faltsua ematea ere.

4. Arau hauste arinak dira abenduaren 23ko 50/1999 Legearen arauak urratzen dituztenak, aurreko idatz zatietan ezarritakoak ez beste batzuk, eta ondoko hauek batez ere:

- a) Arriskutsua izan daitekeen txakurra bide eta espazio publikoetan ibiltzea arduradunak udal baimena eta txakurra erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztagiria aldean eduki gabe.
- b) Pertsona batek arriskutsuak izan daitezkeen bi txakur edo gehiago edukitzea bide eta espazio publikoetan.
- c) Txakur arriskutsuak edukitzea kale eta espazio publikoetan 2 metro baino luzeagoa den uhal edo kate luzagarriarekin.
- d) Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak dauden instalazioetarako ezarritako segurtasun neurriak ez betetzea.
- e) Animalia osasun ziurtagiria urtero ez aurkeztea.

30. artikulua. Zehapenak

Aurreko paragrafoan adierazitako arau hausteengatik isun hauek ezarriko dira:

- Arau hauste arinei, 150,25 eurotik 300,51 eurora bitartekoa.
- Arau hauste larriei, 300,52 eurotik 2.404,05 eurora bitartekoa.
- Arau hauste oso larriak: 2.404,06 euro eta 15.025,30 eurora bitartekoa.

31. artikulua. Zehapen gehigarriak eta kautelazko neurriak

1. 35. artikuluan tipifikatutako arau hausteengatik zehapen gehigarriak ezarri ahal izango dira: arriskutsua izan daitekeen txakurra konfiskatzea, dekomisatzea, esterilizatzea edo hiltzea, establezimendua ixtea eta arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko baimena edo trebatzaile egiaztagiria aldi baterako edo behin betiko baliogabetzea.

2. Arau haustea delitua edo hutsegitea izan ahal bada, agintaritza eskudunak erabaki dezake txakurra konfiskatzea agintaritza judizialak ebazpena eman arte; horrelakoetan berehala jakinarazi behar zaio horren guztiaren berri eskumena daukan jurisdikzio organoari.

3. Agintari eskudunak kautelazko esku hartzea egingo du eta aurreikusia duen harrera zentrorra eramango du arriskutsu izan daitekeen edozein txakur bere jabeak ez baditu betetzen ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak ezarritako neurriak.

32. artikulua. Zehapenak ezartzeko eskumena

1. Animaliak trebatzeko gaitasunaren egiaztatgiriarekin eta trebatzaileak prestatzeko ikastaroen homologazioarekin zerikusia duten arau hausteengatik zehapenak ezartzeko eskumena Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak dauka.

2. Gainerako arau hauste guztietan alkate-lehendakariak dauka eskumena. Lurraldetik kanpoko arau hausteetan Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak dauka eskumena.

3. atala. Hondakinak.

33. artikulua. Arau hausteak

Apirilaren 21eko 10/1998 Legearen arabera ondoko hauek dira arau hauste administratibo arinak animaliei dagokienez:

– Txakurren gorotzak uztea bide eta plaza publikoetan, haurrentzako parkeetan eta lorategietan, bai eta, oro har, apaingarri edota pertsonen igarobide diren guneeetan ere.

34. artikulua. Zehapenak

Aurreko artikuluan adierazitako arau hausteengatik isuna ezarriko da, gehienez ere 601,01 eurokoa

35. artikulua. Zehatzeko eskumena

Alkate-lehendakariak dauka zehatzeko eskumena.

4. atala. Antolamendu sanitarioa

36. artikulua. Arau hausteak

8/1997 Legearen, Euskadiko osasun antolamenduarenaren, 36.2.b.1 artikulua arabera arau haustea da ez betetzea erasoren bat egin duen txakurra al baitari ofizialak edo gaituak animalia hori behatzeko errekerimendua, eskumena duen udal organoak agindutakoa, edo hartzen diren kautelazko neurriak.

37. artikulua. Zehapenak

Aurreko artikuluan adierazitako arau hausteak 3.005,06 eurotik 15.025,30 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 37.1 artikulua xedatutakoaren arabera graduatuko.

38. artikulua. Zehatzeko eskumena

Alkate-lehendakariak dauka zehatzeko eskumena.

5. atala. Ordenantzaren arau hausteak

39. artikulua. Arau hausteak

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, XI. tituluan (horri abenduaren 16ko 57/2003 Legea, toki gobernua modernizatzeko neurriena, gehitu zaio) tipifikatutakoaren arabera hauexek dira arau hausteak:

a) Ordenantza honetan ezarritako eginbeharrak, debekuak edo mugak, arloko berariazko araudian tipifikatuta ez daudenak, ez betetzea arau hauste arina izango da.

b) Udal zerbitzuek txakurrak kontrolatzeko egiten duten lana eragoztearaino arau hauste arina izango da.

c) Kaleko txakurrei kalean jaten ematea arau hauste arina izango da.

d) Txakurraren edukitzari buruzko informazioa edo dokumentazioa ez ematea arau hauste larria izango da, eta txakurra eskatu arren udal agintaritzaren esku ez uztea ere bai, ordenantza honetako 7. artikuluan ezarritakoaren arabera.

40. artikulua. Zehapenak

Aurreko artikuluan tipifikatutako arau hausteengatik isun hauek ezarriko dira:

- Arau hauste oso larriak: 3.000 euroko isuna gehienez ere.
- Arau hauste larriak: 1.500 euroko isuna gehienez ere.
- Arau hauste arinak: 750 euroko isuna gehienez ere.

41. artikulua. Zehatzeko eskumena

Zehatzeko eskumena alkate-lehendakariak du. Lehendakaritza.

6. atala. Zehatzeko prozedura

42. artikulua. Prozedura

Titulu honetan araututako arau hausteengatik zehapena ezartzeko prozedura urriaren 1eko 40/2015 Legean, sektore publikoko araubide juridikoarenean, araututako zehatzeko ahalmenaren printzipioekin bat etorritik gauzatu da. Horrez gainera, aurreko ataletan aipatutako xedapen bakoitzari dagokion araubidea ezartzea bidezkoa izaten bada ala ez, otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalmenari buruzkoa, aplikatuko da edo, bestela, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua, zehatzeko ahalmena erabiltzeko prozeduraren araudia onartzen duena.

43. artikulua. Konkurrentzia zigor prozesuarekin

1. Instrukziogileak prozeduran zehar uste badu instrukziopean dauden gertakariak lege kontrako izaera penala izan dezaketela, ebazteko eskumena daukan organoari emango dio horren berri. Organoak bidezkotzat jotzen badu instrukziogilearen ustea, Fiskaltzari jakinaraziko dizkio gertakariak eta instrukziogileari eskatuko dizkio egindako jarduketei buruzko argibideak.

Halaber, administrazio prozedurak biltzen dituen gertakarien gainean prozesu penala egiten ari dela jakin ondoren, Fiskaltzari eskatuko zaio egindako jarduketei buruzko jakinarazpena. Bestalde, administrazio prozedurak biltzen dituen gertakarien ondoriozko gertakarien gainean prozesu penala irekita dagoenean ere, horrelako beste jakinarazpen bat eskatu zaio Fiskaltzari.

2. Fiskaltzaren jakinarazpena jasotakoan zehapen prozedura ebazteko eskumena daukan organoak prozedura etetea erabakiko du epaileek ebazpen irmoa eman arte.

3. Administrazio zehapen prozedura eten arren, kautelazko neurriek beren hartan jarraitu ahal izango dute, baldin eta bateragarriak badira prozesu penalean hartutako neurriekin. Hala ere, neurri horiek ez dira bateragarritzat joko, baldin eta kautelazko neurri penalak nahikoak badira administrazio zehapen prozeduran aintzat hartutako kautelazko helburuak lortzeko.

Fiskaltzari jakinarazi beharko zaio kautelazko neurriak hartzeko edo beren hartan jarraitzeko egintza.

4. Nolanahi ere, epaileek ebazpen penal irmoan frogatutzat jotako gertakariak lotu egiten dituzte organo administratiboak, bideratzen diren zehapen prozedurei dagokienez.

Administrazioak ofizioz berraztertuko ditu ebazpen penalean frogatutzat jotako gertakarietan oinarritzen ez diren ebazpen administratiboak, eta bat egin beharko du ofiziozko berraztertutako prozeduren arauarekin.

44. artikulua. AIEOri jakinaraztea

Zehatzeko eskumena daukaten organoek zehapen prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren kopia bat bidaliko diote AIEOri.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditu dira ordenantza honen aurka doazen ordenantza, araudi eta udal bando guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Zalduondo, 2017ko maiatzaren 17a

Alkate-lehendakaria

GUSTAVO FERNANDEZ VILLATE

I. ERANSKINA**IDENTIFIKATU GABEKOTXAKURRAK LAGATZEKO DOKUMENTUA**

Urriaren 29ko 6/1993 Legeak, txakurren babesari buruzkoak, 16. artikuluan eta txakurrak edukitzea eta babestea arautzen dituen udal ordenantzako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera ondoko txakurraren edukitzea aldi batez laga zaio honako honi:

Jn./And.:; NAN:

Herria:; probintzia:; kalea:
Telefonoa:; emaila: Txakurraren erregistro zk.:; ezaugarriak:

Arraza:; azala:; kolorea:; sexua:

Gaitasuna:; adina, gutxi gorabehera:; zentroan sartu den eguna: Ez dauka identifikaziorik.

Behean sinatu duenak konpromiso hauek hartu ditu: txakurra zainduko du; eskatuz gero, txakurra zentrori eramango du atzera, baldin eta beste pertsonak batek modu sinesgarrian frogatzen badu animaliaaren legezkotza dela.

Gainera, animaliak edukitzea eta babesteari buruzko udal ordenantzako 5-1 artikuluan eta ondokoetan ezarritako kasuetan, zentro horretara joango da txakurrari mikrotxipa ofizioz ezartzera txakurra bertan hartzen dutenetik hilabete pasatu baino lehen, edo bestela beste albaitaritza zentro edo klinika batean ezarri diotela frogatzen duen ziurtagiria aurkeztuko du.

.....,(e) koaren(a)

Irakurrita eta onartuta

(Animaliaaren lagapena onartu duen pertsonaren sinadura)

II. ERANSKINA**JAKINARAZPENA: AGRESIOA GERTATU ONDORENTXAKURRA BEHATU BEHAR DA**

Animalien Babesari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legeko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, udalek, beste batzuen artean, gizaki bati eraso egiten dioten txakurrak bakartzeko edota giltzapean edukitzeko agindu behar dute, behaketan jartzeko.

Gainera, txakurrak edukitzea eta babestea arautu dituen udal ordenantzako 11. artikuluan xedatzen da zer egin behar duen norbaiti lesioak egiten dizkion txakurraren jabeak edo edukitzaileak, eta prozedura hori aintzan hartzen ez dutenei ezarriko zaizkien zehapenak zehaztu dira.

Horrekin guztiarekin bat etorritik, hauxe jakinarazten zaizu:

Lehenengoa: Jn./And.:; helbidea:; NANA: ; telefonoa: Erasoa egin duen txakurraren jabea edota edukitzailea zara; identifikazio zk.: (txakurrak halakorik eduki behar badu), arraza: 24 ordu pasatu baino lehen al baitari ofiziala edo gaitua hautatu behar duzu eta txakurra haren establezimendura eraman behar duzu hamalau egunez behaketan edukitzeko. Behaketa amaitutakoan 48 orduko epea izango duzu al baitariaren ziurtagiria/txostena.....(e) ko Udalekoari bidaltzeko.

Bigarrena: Zerbait argitzea nahi baduzu edo informazio gehiago behar baduzu,(e) ko Udalekora jo dezakezu (egoitza:) edota telefono honetara deitu dezakezu:

.....,(e) koaren(a)

Irakurrita eta onartuta

(Jabe edota edukitzailearen sinadura)

III. ERANSKINA**ALBAITARIARENTXOSTENA TXAKUR HAGINKARIARI BURUZ**

Albaitaria:.....

Elkargoko zk.:

Helbidea:; tel.:

ANIMALIAREN DATUAK

Jabea		NAN
Helbidea	Udalerria	Telefonoa

Espezia	Identifikazioa	Izaena	Arraza
---------	----------------	--------	--------

Adina	Sexua	Erantzun zibileko aseguru
-------	-------	---------------------------

ZIURTATZEN DUT:

Txakur hori zaintzapean eta behaketan eduki dut. egunetan aztertu dut eta ez dut sumatu gaixotasun zoonosikoaren zantzurik, eta horregatik zaintza eta behaketa aldia bukatutzat eman dut.

Sinadura eta zigilua

Lekua eta eguna: